

AITA



VILLASANTE



# A1

# Sarrera-proba

Idazmena eta mintzamena

Izen-abizenak:

Telefona eta helbide elektronikoa:

Matrikula-zenbakia:



**Idazmena**

Idatzi **20-40 berba** bitarteko testua. **Ez erabili letra handiegia.**

**Gaia: Ainara oporretan**

**Egoera:**


Ainara kanpoan dago egun batzuk pasatzen, eta postala idatzi du euskaltegiko ikaskideentzat.

**Egitekoa:**

Irakurri postala eta erantzun Ainarari. Horretarako:

- Kontatu nola zaudeten.
- Kontatu zuek ere zer egiten duzuen.

Idatzi postala Ainarari.

<p>Kaixo, lagunok:          Zer moduz? Ni oso ondo nabil.          Egunero gauza bera egiten dugu, baina lasaitzera etorri gara, eta leku hau oso ona da horretarako.          Goizeko 7etan jaikitzen gara, eta gosaldu aurretik, korrika pixka bat egiten dugu. Gero, dutxatu eta gosaltzera joaten gara. Ez dugu asko gosaltzen, fruita pixka bat, kafea, eta tostada batzuk.          Gosaldu ondoren, hondartzara joaten gara, bainatzera. Ni ez naiz asko egoten eguzkitan, baina nire mutila bai.          Arratsaldean ingurua bisitatzeko aprobetxatzen dugu, mendi-buelta txiki bat ematen dugu, eta inguruko herriak bisitatzera joaten gara. Gauean, hotelean afaltzen dugu, eta, afaldu eta gero, paseotxo bat ematen dugu. Gero, hotelera itzuli, eta ohera.          Beno, lagunok, lekua bukatu zait; beraz, bueltatzen naizenean gehiago kontatuko dizuet.          Ondo ibili, eta asko ikasi!</p> <p style="text-align: right;">Ainara</p>	<div style="text-align: right;">  </div> <p><b>Aita Villasante Udal Euskaltegia</b>  <b>A1eko taldea</b>          Artekalea 8, 1.a          48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)</p>
---	---

AITA



VILLASANTE







**AITA**



**VILLASANTE**



## Mintzamena

Egin **zeure buruaren aurkezpena.**

Horretarako, **erabili puntu hauetako batzuk:**

- Izen-abizenak.
- Ikasketak (oinarrizko hezkuntza, DBH, unibertsitatea...).
- Euskara zure bizitzan (familiar, lagunartean, Interneten, Whatsappetan...).
- Zergatik zatoz euskaltegira?
- Zure familia (gurasoak, euren lanbideak, aitaita-amamak...).
- Kontatu zer egin duzun gaur.

Grabatu egingo dugu testua.